

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian umeak izan, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren laguntzak arautzen dituzten oinarrien 2026. urteko deialdia

Udalbatzak, 2026ko martxoaren 10eko osoko bilkuran, Donemiliagako udalerrian seme-alabak jaio, adoptatu edo harreran hartzeagatik ematen diren 2026ko laguntzetarako oinarri arauak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua, Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzaren 4.4 artikulua eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, guztiek jakin ditzaten.

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Laguntza honen xedea da Donemiliagako udalerrian umeak izan, adoptatu edo harreran hartzeagatik dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa arautzea, udalerria osatzen duten herrietan belaunaldi berriak egongo direla ziurtatzeko asmoz.

2. ARTIKULUA. ONURADUNAK.

Hauek izan daitezke oinarriotan araututako laguntzen onuradun: umea jaio edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak.

3. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK.

– 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

– 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo etxean hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urtez jarraian egon behar du erroldatuta, umea izan, adoptatu edo etxean hartu aurretik. Gehienez lau hilabetez egon daiteke erroldatu gabe bi urteko epean, eta bai berak, bai umeak erroldatuta jarraitu behar dute beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ostean. Eskatzailea udalerrian erroldatu berria bada eta, ondorioz, bi urte baino gutxiago badaramatza erroldatuta, laguntza eskatu ahal izango du, baldin eta jaiotzaren edo adopzioaren ondorengo bi urteetan, gutxienez, bere eta hurraren erroldari eutsiko diola agintzen badu.

4. ARTIKULUA. JAIOTZAK, ADOPZIOAK ETA HARRERA ARAUBIDEA.

Jaiotako eta adopzio edo harreran hartutako bakoitzeko, dagokion dirulaguntza eskuratzeko eskubidea izango da.

Haur baten baino gehiagoren erditze, adopzio edo harrera hartzeetan, ume bakoitzeko emango da dirulaguntza.

5. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Dirulaguntza 231 480001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da, 1000,00 euroko zenbatekoarekin.

2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko (egun biak barne) jaiotzek, adopzioek edo harreran hartzeek 600,00 euroko laguntza jasoko dute, baldin eta ezarritako betekizun eta baldintza orokorrak betetzen badituzte.

Hori guztia, baldin eta aurrekontu partidarik badago. Baldin eta eskaera kopurua eta jasoko diren diru kopuruak direla-eta dirulaguntzen gehieneko zenbatekoak gutxitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, murrizketa proportzioan ezarriko zaie eskatzaile guztiei.

6. ARTIKULUA. ESKAERAK, AGIRIAK ETA EPEA.

Eskaerak eta agiriak Donemiliagako udaletxean aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Eskaerak 2026ko uztailaren 14ra arte egin ahal izango dira.

Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko, gehienez ere, 3 hilabete izango dira haiek aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera.

Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko ditu onuradunak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak):

- Eskatzailearen NANA.
- Haur bat adoptatuz gero, ebazpen judizialaren fotokopia edo adopzioa egin dela jasotzen duen antzeko agiriren bat.
- Harreran hartuz gero, hura egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
- Dirulaguntzaren eskatzailearen banku kontuko zenbakia, zeinean bera azalduko baita onuradun.
- Familia liburua.

Espedientea izapidetzen denean, udaleko administrazio zerbitzuek ofizioz jasoko dituzte agiri hauek espedientean:

- Laguntzen onuradunen errolda orria eta benetan bertan bizi direla egiaztatzen duen agiria, udal agiritegietan lor daitekeena, bai eta udalean zein egunetik aurrera dauden alta emanda dioen agiria ere.
- Dirulaguntza eskaeraren arrazoia den haurraren errolda orria eta benetan bertan bizi dela egiaztatzen duen agiria.
- Eskatzaileak udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.

7. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA ORGANO ESKUDUNA.

Udaleko zerbitzu teknikoek eskatzaileak laguntzaren onuradun izateko betekizunak betetzen dituela egiaztatu eta gero, laguntza emateari buruzko proposamena aurkeztuko diote alkateari.

Proposamen hori aztertutakoan, bai eta Informazio Batzorde Orokorraren proposamena aztertutakoan ere, alkateak izango du dirulaguntza emateko eskumena.

8. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste herri administrazio batzuek xede bererako eman ditzaketan beste batzuekin.

9. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunek egunean eduki beharko dituzte beren betebeharrak ekonomikoak eta administratiboak udal honetako ogasunarekin, dirulaguntza ordaintzen zaien unean.

10. ARTIKULUA. BETEKIZUNAK EZ BETETZEA.

Oinarri hauetan ezarritako betekizunak ez betetzeak berekin ekarriko du ordaindutako diru kopuruak itzuli behar izatea.

11. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA.

“Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: Toki Araubidearen Arautegia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; udalak onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantza eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.”

12. ARTIKULUA. KONFIDENTZIALTASUNA.

Donemiliagako Udalak, Datu Pertsonalen Babesaren eta Eskubide Digitalen Bermearen abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa betez, jakinarazten du ematen dizkiguzun datuak Donemiliagako Udalaren ardurapeko tratamendu jarduera batean sartuko direla, zeinaren helburu baita horien ondoriozko administrazio espedienteak eta administrazio jarduerak izapidetzea eta kudeatzea. Ez da aurreikusten zure datuak hirugarrenei jakinaraztea, nahiz eta, haien edukiaren arabera, hartara legez behartuta egon gaitzkeen. Halaber, eskubidea izango duzu datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko. Eskubide horiek guztiak Donemiliagako Udalean egikarrituko dira, Arabako Erdoñana herriko (01208) Andia kaleko 9an edo posta elektronikoko honetan: dpo-dbo.sanmillan@ayto.araba.eus.

Erdoñana, 2026ko apirilaren 22a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO